

Irakurketaren inguruko ikastaroa martxan Alegiako liburutegian

ALEGIA. DV. Etxerako lanak begiratzuz hasi zuten bigarren tailerra. Etxerako lanak, bai, halaxe bidali baitzizkien Yolanda Arrietak lehenengo saioan. Guraso bakoitzak beren umeari edo umeei gehien gustatzen zitzaaien ipuina ekarri behar zuen eta Yolandak zioen bezala, ipuin hori gainerakoei saldu. Hiru txerritxoak eta otsoa ipuin klasikoa ekarri zuen guraso batek. Nire semeari asko gustatzen zaio, azaldu zuen. Gainera, iada ondo ezagutzen du istorioa eta berak bakarrik ikusten du askotan liburua.

Klasikoak

Adibide hori abiapuntutzat hartuta azaldu zuen Yolandak joan den ostiraleko saioko lehenengo gakoetako bat. Liburua ezagutzen du eta bakarrik ikusten du. Umearentzat ipuina edo liburua bidaia bat bezala da. Behin liburua ezagutzen duenean, bidaia hori berriz bakarrik egitera ausartzen da, badakielako leku seguruan dagoela. Bidaiaiko arriskuak berriz bizitzen ditu baina oraingoan aldeztu aurretik badaki ondo bukatuko dela. Horregatik ausartzen da liburua bakarrik ikustera.

Beste guraso batek aipatu zuen, berari klasikoaren bertsio berriak gustatzen zaizkiola, istorioari buelta ematen diotenak. Horiek ere kontutan hartzekoak direla azaldu zuen Yolandak.

Tradizioa altxortzat hartu gabe, garrantzitsua da umeei jakinaraztea gauzak aldatu egiten direla. Hori bai, beti ere, jatorria non duten ahaztu gabe.

Egilea eta marrazkilaria

La pequeña oruga glotona eta Gilen katua izan ziren gurasoek ekarri zituzten ipuinetako beste bi. Ekarritakoekin, liburu bakoitzaren fitxa osatzen saiatu ziren, beronen hainbat ezaugarri identifikatuz: izenburua, autorea, marrazkilaria, itzultzailea, argitaletxea,...

Idazlea ezagutzearen garrantzia azpimarratu zuen Yolandak. Umeek idazlea nor den jakitea garrantzitsua da. Berari buruzko datuak ezagutzen badituzte beraiegangandik hurbilago sentituko dute, eurek bezalako pertsona bat dela ikusiko dute eta pentsa dezakete: 'ni ere idazle izan naiteke behin edo behin'.

Marrazkilariak ere garrantzia handia du umeen ipuinetan. Liburu hauetan askotan irudiak zeresan gehiago dauka hitzak baino, azaldu zuen Yolandak. Gainera, marrazki hauek beraiek egiten dituztenen antzekoak izaten dira eta horrek euren arreta deitzen du. Horregatik, marrazkiak nork egin dituen ezagutaraztea ere interesgarria izan daiteke.

Nola irakurri ipuin bat?

Joan den urriaren 20an hasi zen Irakurketaz gozatzen izeneko hitzaldi sorta. Lehen saio hartako gaia Nola aukeratu irakurgai bat izan zen. Bigarren hitzaldian testu bat nola irakurri behar den azaldu zien Yolanda gerturatu ziren gurasoei. Hainbat aholku eman zizkien Yolandak.

Umeei ipuinak kontatzerako garaian, istorioa bera bezain garrantzitsua da kontakizuna. Horregatik, honek, adin txikienetan bereziki, jolas baten modukoa izan behar du. Horretarako errimak, errepikapenak, onomatopeiak, erabili daitezke, zioen Yolandak. Umeei asko gustatzen zaizkie onomatopeiak, hauen zain egoten dira eta gero beraiek errepikatzea gustatzen zaie.

Ipuina gurasoaren eta umearen artean irakurtzea da egokiena, lehenengo batek konta dezala eta gero besteak. Irakurriko duten ipuina ere bien artean aukeratzea komeni izaten da. Bien arteko harremana estutzeko une egokia izan daiteke ipuin baten irakurketa. Datorren ostiralean, azaroak 3, izango da azken bilkura Alegian.

Bertan parte hartu nahi duenak arratsaldeko 14:30etan Alegiako Udal Liburutegira agertu besterik ez du. 2006ko udaberrian Yolanda Arrietak Urnietako Egape ikastolan haurren irakurzaletasunari buruzko beste tailer bat antolatu zuen eta bertan bildu zirenen artean, dekalogo bat osatu zuten, irakurzaletasun hori bultzatzeko hainbat aholku jasotzen zituen. Dekalogo hau osorik irakur daiteke www.irakurzaletasuna.blog.com web gunean.

Hona hemen aholku batzuk:

- Hurrek gurasoak irakurtzen ikus ditzatela
- Gurasoek egunero zerbait irakur diezaietela umeei.
- Irakurtzen dena umearen mundura egokitzea.
- Egunero pixka bat irakurri umeari.
- Irakurtzeko une hori izan dadila kontuak esan eta elkarrekin gozatzeko unea.
- Umeen iritzia kontutan hartu eta errespetatu.
- Umearen ondoan eseri eta erakutsi liburuak zer dioen.
- Bion artean aukeratu liburua.
- Liburu hori irakurtzeko eta ulertzeko erraza izan dadila.
- Liburuek umeekiko harremana eta hurbiltasuna areagotzen laguntzen dute